



Basque Writing 8

Bertsolaritza, euskal hitza



BERTSOA: BAT-BATEKOA BEZAIN SENDOA

Literaturan, kazetaritzan, ikerkuntzan edo are irakaskuntzan biderik egin badut, txikitatik hitzekin olgetako plazera ikasi dudalako izan da neurri handi batean. Euskarazko berbaren garrantzia etxetik jaso genuen batzuk, eskolan hartu dute besteek, baina komunikatzeko bezainbat gozatzeko, jostatzeko, zirikatze ere badela, bizian bizi den tresna, bertsoak ekarri digu neurri handi batean. Eta horrekin, izan dugu gure prentsa, gure literatura, beste hainbat adierazpen artistiko; baina askorentzat, bertsoa izan da horretarako bide.

Hitzaren kirol nazionala deitu zion Xabier Amurizak, bertsoa bere esparruko tradizioaletik hirira eta irakaskuntzara eroanda ekarpen handiena egin zuenak. Gero asmatu du bertso-lariak eta bertsozaleak antolakuntzan. Bertso-irakasle diharduen lagun batek zioetan, bestelako ikasgaietan asmatu ezinik dabilen zenbat ikasle gozaten duen paperik ez boligrafozik behar ez den eskola horretan. Hitza eta ahotsa behar dira, ez besterik; gero datoz irudimena, ausardia, eta bidean, hizkuntzarekin jolastez batera ikasten direnak: erregistro literarioak, jendaurreko jarrera, kantaera, e.a. Izan ere, hitzak literaturarekin lotzen gaitu, baina antzerkiarekin, performancearekin eta musikarekin ere lotura errazak bila dakizkioke.

Literaturak asko hartu du bertsotik, eta era berean ez da errezelotik urrun ibili, eliteak arrakasta herrikoia sarritan begiratzaren dion eran. Genero bakoitzak bere bidea eta indarra hartu ahala, euskara bera sendotu araziz, pentsa liteke nork bere eremu apartekoa duela. Baina gaurko bertsolaria erraz dabil hitzaren beste esparruetan, nobelatik kazetara. Bertsoa ikasten dabilen milaka gaztetxoetatik literaturgile bat

baino gehiago irtengo da. Ahozko poesiatik, lagun-artetik beste literatur-generoetara jauzia, sarritan egindako bidea da azken urteotan.

Gaur badakigu ez gairela bakarrik honetan munduan. Ahozkotasuna idatziaren gainetik izan duten herri gehienek antzeko formulak dituzte, idatziarekin batera uztartu dituzte beste batzuek, eta modu tradizioaletik hip hop doinueta eta bestelako poesia urbanoetara, hitz inprobisatuak indarra dauka gaur egun. Zeresanik ez aro teknologikoan, mezu bizkor, labur eta zehatzen sasoian, hitz biluziak badu indarririk.

Idazleak ez bezala, bertsolariak ez zeukan zertan kanporako bidea egin, literatura hori itzulpenaren bidez munduratzeko asmoz. Baina aspaldi hasi zuen kulturartekotasunaren bidea ere. Gaur mundu zabaletik etorri ohi dira Euskal Herriko fenomeno aztertzer. Gurean ere ekarpen txiki hau egin nahi izan dugu, euskarazko hitzaren adierazpen aberats eta arrakastatsuenetako baten berri emateko. Esker onez handik eta hemendik laguntza eman diguten guztiei, Bertsozale Elkartetik hasi, Etxepare Institutuarekin (gaian sakontzeko oso material interesgarria dauka sarean) eta Stein Torger samiarren iparraldeko lurraldetatik igorritako argazkietara iritsi arte. Ahozko literatura, bat-bateko poesia, datozen orrialdeetan bilduta, mundu zabaleko PEN taldeetako idazleci gure altxorrik ustez hauskorrenetakoa –hitza, ahotsa, kantatu eta galdu dena–, gure kultur-adierazpen sendoenetakoa zelan bihurtu den erakusteko asmoz.



Urtzi Urrutikoetxea
Euskal PEN Klubaren lehendakaria



Bertsoa bizi-bizirik XXI. mendean

Nahitaezko soldadutzaren aurrean intsumiso deklaratzegatik ezarri zioten epaketan, Jon Sarasuak, epailearen galderari erantzunez, bertsolari ofizioa zertan zetzan azaldu behar izan zuen. Epaian jaso geratu denez, Jon Sarasuaren adierazpenetatik epaileak zera ulertu zuen, bertsolariak zirela *“una especie de juglares sabelotodo”*. Halere, definizio horri zuzenketa batzuk egin beharra dago.



Hasteko, bertsolariaren profila hurbilago legoke trobadoretik eta ez juglaretik, bertsolariak ez baititu abesten beste norbaitek (edo berak aurretiaz) moldaturiko koplak; aitzitik, inprobisatu egiten ditu, abestu ahala, bere bertsoak. Dena dela, eta alderdi hau aurrekoa baino askoz ere garrantzitsuagoa da, gaur egungo bertsolariak juglare edo trobadore gisa definitzeak okerreko iritzi bati eman liezaioke bide, hots, antzinako fenomeno bat dela, arrazoi misterioetsuren batengatik, duela hainbat mende praktikatzen zen bezalaxe gure egunetara arte iraun duena. Hor, beraz, erlikia batez ariko ginateke, gauza miresgarri bezain alferreko batez, lehenbiziko



asmakari aeronautikoak edo XIX. mendeko idazmakinak bezala.

Ezer ez egiatik urrunago. Bertsolaritza gaur egun errealtate sendo eta onarpen sozial handikoa da euskarak bizirik dirauen eremu geografikoetan. Bertsolaritzak gizarte euskaldunetan daukan sasoi bete hori argi eta garbi islatzen da egin diren azterketa soziologikoetan.

Edo, bestela, bertsolaritzaren bizitasuna egiaztatu nahi duenak, ez dauka bere agerpen masiboenetako batean erreparatu besterik: bertsolarien txapelketa nagusiko finala, lau urtean behin egiten den lehiaketa. 2005ean final hori Bizkaian egin zen, zehazki-

ago BECen (Bilbo Exhibition Centre). Finala, euskaldun dentsitate kopuru handiena daukan probintzian, Gipuzkoan, egiten ez zen lehenbiziko aldia zen, benetako erronka, alegia. Emaiza gogoangarria izan zen. 15.000 lagun izan ziren lehiaketaren lekuko (eta

“Irudiaren gizarte honetan nekez ulertzen da nola den posible 15.000 lagun sei ordu baino gehiagoan egotea, funtsean bideokliparen antitesia den emanaldi bat atseginenez entzuten”

beste hainbatek irratik eta telebista bidez ekitaldi guztia jarraitu zuten). Beste horrenbeste gertatu zen 2009ko eta 2013ko edizioetan ere.

Irudiaren gizarte honetan, erritmo gero eta zorabiagarriagoekin, arreta guztiz lehiatua eta mezu gero eta laburragoekin, nekez ulertzen da nola den posible 15.000 lagun sei ordu baino gehiagoan egotea (goiz eta arratsaldeko saioetan, tartean bazkaltzeko etenaldi batekin) funtsean bideokliparen antitesia den emanaldi bat atseginenez entzuten: bertsolariek “a capella” abesten dute, zutik, jarrera hieratikoa mikroen atzean parapetatutik, hutsaren hurrengo eszenografiarekin, eta emanaldiaren erritmoa bertsoen edukiak markatzen duela.



Bertsolaritzak gaur egungo euskal gizartean daukan garrantzia ez da kasualitatearen emaitza; aitzitik, neurri handi batean behintzat, azken 25 urte hauetan egin den berrikuntzaren aldeko apustuari zor zaio, bertsolari, bertsozale eta antolatzaile belaunaldi batek landutako estrategia soziokulturalaren barruan kokatzen den apustua, beren gidaritzapean hartu dutelarik bertsolaritza kolektibo gisa, Bertsozale Elkartearen inguruan antolatuz.



Joxerra Gartzia

Bertsolaritzaren ikerlaria



Arrakastaren giltza: antolakuntza

Bertsozale Elkarte

Bertsolaritzak biziraun ez eze euskarazko jardun arrakastatsuenetakoa izateko klabeak asko dira. Horietako bat, historikoki egin duen garapenari helduta, unean uneko gizarte, jende



eta egoerara moldatzea eta hari kantatzea. Beste edozein jardun baino hauskorragoa izan daiteke, ondare ez-materialekin gertatu ohi denez: hura bizitzeko ezinbesteko da hura ahalbidetzen duten baldintzak betetzea. Baina bertsoak erakusten duenez, baldintzatzaileak dituen gisan eragilea ere izan daiteke. Labur esanda: bertsoak,

esate baterako, beharrezko du euskara, euskara bizi eta indartu gabe ezingo du bertsoak iraun. Baina bertsoak ere, euskararen biziraupenean izan dezake rol bat, eta hala du.

Arrakastaren gakoak: transmisioa, sustapena eta ikerkuntza. Eta hiberidazioari beldurrik ez izatea

Bertsolariak gizartera moldatzen asmatze horretan, hainbat figura, une eta erabaki ageri dira. Xabier Amurizaren izena gailentzen da halaber, bertsoari buruzko lehen teorizazio sakonetik, hainbat uste zahar gainditu eta ideia berriak ekarri baitzituen: etxeko

euskara dialektalean ibili ordez, euskara batu eta literarioa posible zela erakutsita lehendabizi, eta hala izanik, bertsoa ez zela halaber, naturak edo Jainkoak emandako dohaina, teknika baten bidez ikas zitekeen jarduna baizik. Hala sortu ziren bertso-eskolak, euskarak berak indar handirik izan ez arren euskararen aldeko taldeak baziren lekuan. Bilboko Santutxu auzoa izan zen horren adibide. Oraindik martxan da eskola. Hurrengo hamarkadetan Arabako bazterrik bazter zabandu ziren bertso-eskolak, halaber, euskarak daukan arnagune garrantzitsuenetakoa bihurtu arte, eta euskararen mugimenduen zutabeetako izanez. Antzeratsu Ipar Euskal Herrian. Ez da harritzekoa, beraz, euskararen aldeko elkarteetan herrialde horietako bertsolari ugari egotea, bertso-jardunaz gain euskaltzale gisa parte hartzen.

80ko hamarkadaren erditik aurrera, bertsolariak bere burua antolatzen ere hasi ziren, eta 1987an Euskal Herriko Bertsolari (gaur Bertsozale) Elkartea jaio zen. Gaur egun euskalgintzan dagoen mugimendu antolatu, indartsu eta aktiboenetakoa da bihurtu da Bertsozale Elkartea. Haren ardura da lau urterik behin txapelketa nagusia antolatzea, baita herrialdez herrialdekoa ere. Baina horrekin batera, 70 langile ditu zeregin ugaritan, besteak beste, milaka umeri bertsotan irakasten Euskal Herri osoan. Hiru

jardun eremu nagusi ditu Elkartek, hainbat batzordetan banatuta:

Transmisioa. Batzuk txirrindulari profesional eta beste batzuk noizean behin paseoan ibiltzeko, baina bizikletan ibiltzea denek ikas dezaketen gisan, bertsotan aritzea ere denon eskura dagoela fro-



g a t u

zen aspaldi. Eta transmisioaren erpin nagusietako bat, horregatik, bertso-eskoletan arautu da. Oro har, bertsotan aritzeko biltzen diren lagunak dira, Euskal Herriko hainbat herri eta auzotan. Hainbat mota daude, plazaz plaza kantuan ibili ohi direnak, zein lagun artean soilik dihardutenak, eta tartean egon daitezkeen mila mota, gaztetxoek osatua, helduagoek... Transmisioak baditu beste erpin batzuk ere. Batetik, Hezkuntza Arautuan 14.000 haur eta gaztek lantzen dute bertsolaritza eta ahozkotasan proiektua. Bestetik, aisialdia, bertso udalekuak eskaintzen ditu urtero Bertsozale Elkartek.

Sustapena

Bertsolarien plazaratzea eta honen zabalkundea du langintza nagusi. Bertsolari Txapelketa eta Euskal Telebistako



Hitzetik Hortzera saioa ditu jardun ezagun eta zaharrenetakoa, baita urtarrean egiten den Bertso Eguna ere. Egun, ikusentzuteko eta multimediar eremuan egiten dena ere lantzen du,

hala nola bertsoa.com. Bertsolaritzaren azpiegitura indartzeko Lanku enpresa ere batzorde

honetan dago; bertsoa oinarri duten kultur ekitaldiak kudeatzen ditu, beti ere herri mugimenduaren antolakuntza errespetatzen.



Ikerkuntza

Bertsolaritzaren datu bilketaz, azterketaz eta garapenaz arduratzen da. 1990ean **Xenpelar Dokumentazio Zentroa** sortu zuen Bertsozale Elkar-teak, bertsolaritzaren ondarea biltzeko asmoz: bertso saioen grabazioak, bertso-paperak, argazkiak, prentsa-albisteak, kartelak, liburuak... Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bilketa lana batez ere Bertsozale Elkartaren jardunaren bidez eta bertsozaleen dohaintza-ren bitartez egiten da.

Hiru jardun eremu horiez gain, **Komunikazioaren Sailak** ere garrantzi handia izan du historikoki, bai barne-komunikazioan, bai kanpora begira, hasi webgunetik eta hedabi-deekiko harremanera.

2008an **Genero Taldea** ere sortu zen, Elkartaren barruan eta gainontzeko sailetan parekidetasuna sustatzeko. Bide horretan, agenteen formazioa, hitzaldiak, tailerrak eta formazioa eta sentsibilizazioarako lanak, eta gizarteratzeko ekimenak garatu dituzte.

Hibridazioa konplexurik gabe

Literaturarekin dituen harremanak aparteko kapitulu batean landu ditugu. Baina bertsoak gizartearekin txertatzeko, unean unekora moldatzeko gaitasun horretan, konplexurik gabe



egin du jauzi bertsoetik kanpoko esparruetara. Batzuetan hurbil samar izan ditzakeen eremuetan, musikaren inguruan esaterako, eta nabarmen urrunago bestetan.

Bertsolariak mediku-kongresuetan egon dira, nazioarteko adituen aurrean, rap eta hip hop artisten artean, artearen hainbat eremutan, telebistan zein irratan, twitterren zein beste edozein sare sozialetan. Banakako jarduna taldeetara ere eraman izan da. Funtsean antolakuntza baita bertsoak lortu duen onarpenaren giltza nagusia.


Bi mila bazkide, 70 langile, ehun lagun baino gehiago lan boluntarioan, milaka ikasle eta dozenaka bertso-eskola, eta behetik gorako antolamendua Euskal Herriko Elkarteko zati diren **best lurraldeetako elkar-teetan** (Bizkaikoa, Arabakoa, Gipuzkoakoa, Nafarroakoa eta Ipar Euskal Herrikoa). Horien guztien lanaren ondorioz, Zuzendaritza Batzordetik bazkide arruntera, izan dira 1.600 saio baino gehiagoko urteak. Kriaki bertsoari eta saioen antolakuntzari ere eragin dio, baina oraindik, bertso-final ikusgarrietatik harago, egunean lau bat saio Euskal Herriko bazterretan. Ondo egindako lanaren fruitu.

Bertsolari Txapelketa

Missouriko unibertsitatean Ahozko Tradizioaren Ikerketen Zentroko **John Miles Foley** zenak (1947-2012), beharrezko distantzia hartuta ezin hobeto azaldu zuen Bertsolari



Txapelketa Nagusiaren dimentsioa: "pentsatu 13.025 sarrera saltzea ahozko poesia-rako. Pentsa are 6-7 orduko zuzeneko emanaldia bertako telebistak gertatu ahala emititzen, atal, laburpen eta adi-tuekin iruzkinekin. Pentsa egun bateko gertakizuna -finaleko saioa hainbat kanporaketako, lau urtean behineko drama olinpikoa, sailkapen eta elimina-zioekin-, nortasun etniko eta nazionala sustatzen munduan beste inon ez beza-lako mailara. Pentsatu fenomeno guzti



horiek

batzea, eta Bertsolari Txapelketa daukazu, bertsolaritzaren txapelketa nazionala, hau da, euskarako ahozko tradizioaren poesia-lehia". Foley zenak hitzok idaztetik beste bi txapelketa joan dira, eta aparra apaldu ordeaz haziz eta haziz joan da. Finalerako hilabete baino gehiago falta zela, salduak ziren ia 15 mila sarrerak. "Ahozko poesiako emanaldi bat" dio Foleyk, "nik dakidala munduan parekorik ez duena. Bertsolaritza pertsonalki bizi eta birsortzeko kultur beharrianagatik Barakaldora etorri ziren milaka zaleentzat, ekitaldiak asegarri eta pizgarria da". Ia hamabost mila lagun zuzenean eta 300 mila baino gehiago telebistaz jarraitzen.

"Ahozko poesiako emanaldi bat, nik dakidala munduan parekorik ez duena".

2 0 0 5

hartan abiarazitako bideak urrats sendoak egin ditu. Ohiko bertsozaleez aspaldi hurbildu ziren bertso-txapelketara gainontzeko euskaldunetarik asko, su-tsuenak izan gabe ere lau urterik behin den hitzordua galdu gura ez dutenak. 2005 hartarako ere lotura

ugari eginak ziren mundu zabalean ahozko inprobisazioan ziharduten beste kultur adierazpen batzuekin, baita fenomeno horren iker-tzaileekin ere. **John Foley** (1947-2012) izan zen garrantzitsuenak. Eta hura izan zen ziur aski

Euskal Herriatik kanpo bertsoak izandako enbaxadore onena, Ameriketara



hainbat bidaia egin dituzten euskal bertsolariez gain, noski. Baina eremu bat falta zuen: Euskal Herrian bertan bizi diren erdaldunak. Espainolez ia erabat diharduten hedabideekin ahalegin berezia egin genuen, paperezkoetatik ikusentzutekoetara. Erronkak unean bertan bezainbat, 2013ko azken txapelketan ageri ditu emaitzak: hedabide guztiek arreta eta jarraipena egin diote, inoiz baino tarte zabalagoa eman diote. Euskaldunontzat zirrara eragiten duten edo oso bereziak diren emanaldi batzuk sarritan iritsi ere ez dira egiten erdaldunengana. Orain, nekez egongo da bertso-txapelketaren berri izango ez duenik. Eta esan genezake, bere itxura lehor eta biluzian, erdalduna ere jabetzen dela bertsoak magiarik izan behar duela hainbeste orduz milaka lagunengana barre, negar, zirrara eta beste hainbat emozio pizteko.

Lehia-bertsolaritzarako arauak errazak baina oso zorrotzak dira. MC (gidari) batek gai edo *prompt* bat irakurtzen die lehiakideei, eta segundo gutxi batzuk dituzte -gehienetan minutu bat baino gutxiago- 8-12 lerroko poema osatzeko emandako bertso-forma baten moldean, zeinak erimaren eskema ere ezartzen duen. Melodiak ehunka doinu tradizionalen artean hautatzen dira. Bestela esanda, poetek aurretik inoiz osatu gabeko ideia paregabeak sartu behar dituzte, arau eta molde ugariko marko oso konplexu batean, and zeregin horiek guztiak denak batera eta performance inprobisatua egin behar dituzte. Pilota asko dira airean eusteko denak batera, beraz bertsolariek malabarista iaioak izan behar dute.

Goizeko hamaikak baino ordu eta erdi lehenago BEC ospakizun itzela zen, aspaldiko lagunengana, egun handi baten lekuko izango ziren milaka lagunengana topagune. Nazioartetik inoiz baino aditu gehiago, Estatu Batuetatik, Kubatik, Mexikotik, Galesetik, Sardiniatik, Norvegiatik, Kataluniatik... mundu osoko iker-tzaileek ere, berehalako itzulpenak sormen poetikoan izan ditzakeen mugez jakitun izanda ere, egunaz gozatu nahi dute.

Protagonistak izarren gisan irten dira, Bertsolari dokumentalak ageri zuen legez. Eta kantatu eta kantatu zuten, gizarteko mila kezka eta roletatik, gatazka armatuaren amaieratik datorren itxaropenetik krisialdi sakonaren etsipenera, presoaren roletik, torturazailarenetik, senidea hil dioten biktimarenetik, etxea galdu duenarenetik, langabearen lekutik, poeta erbesteratuaren ahotik... bertsolaria eta mikrofonoa, hitzak margotzen du performancea, eta bertsozaleak bere isiltasun, errepikapen, txalo eta arnasez laguntzen



du, ez du besterik behar poeta bere rolean irudikatzeko, dela prostituta, alkoholiko, dibortziatu, sindikalista, migratzaile, edo ibilian rola komediara daraman bikotea, langile pare... ez dago sudur

gorria jantzi beharrik, pailazoa dela esateaz bat hura dakusa bertsozaleak.

Orduak badoaz eta emozioak azkenean lehertzen dira. Ekitaldi poetikoa da, baina askoz gehiago ere bai: Ipar eta Hego, alde guztietako euskaldunen topagune da, itxaropen-txute bat beti albiste onak ez dituen hitz-komunitate batentzat, lau urterik behin indar hartzeko beharra duen herri baten ispilu bihurtzen da. Edo hala bizi du bertsozaleak, gutxienez.

Hala lehertu da arratsaldeko zortziak baino lehenxeago txapelketa. Inoiz baino ausartago politikoki, eta inoiz baino polemika gutxiagorekin, komunio itzelean bateko eta besteko euskaldunak. Itzela izan zen 2009an Maialen Lujanbiok txapela janztea. Lujanbioren bertsokerak eskuratu zituen puntu gehien, baina transzendentzia agurrean bertan adierazi zuen: "gogoratzen naiz lehengo amonen zapi gaineko gobaraz, gogoratzen naiz lehengo amonaz gaurko amaz ta alabaz..." Bai, emakumeak zeukan txapela, bakarrik dena ordezkatzeko egokitzen den gisan, eta denek bakar-rean ordezkaria ikus dezaketengana.



Aurten Amets Arzallusek irabazi du. Ordu erdiko bidea ere ez dago Lujanbioren Hernanitik Arzallusen Hendaiara, eta aspaldi desagertu ziren mugako kontrolak. Baina muga hor dago euskaldunon buruan ere, etengabe gogorazten digute bi estatutan bereizita dagoela gure herria. Eta Frantziaren menpeko Iparraldean euskara beti koska bat edo bi zailago bizi dela. Eta hor bertsoaren zeregina Foleyk laburbiltzen digu berriz ere:

"Txapelketa hauek ikusgarriak izanda ere -eta zinez dira ikusgarri scope, prozesu eta emaitza-, haien indarra ez dator soilik lau urtean behineko jaialdi handi eta transient-etik. Inola ere ez. Indar nabarmen horrek bertsolaritzaren ongoingness and ubiquity-an, haren historia luzea eta euskal kulturarako etengabe garrantzian danka jatorria/iturria. Lepo betetako erakustazokako aretoko eskala makroan zein berriko bertso afari xume eta etxekoian, abozko poesia remarkable honek abozko poesiak beti egin duena egiten du: gizartearen izenean lan egin, balore etniko eta komunitarioen izenean, mundua negoziatzeko mekanismo aldakor gisa. Egiaz bertsolaritza euskal kulturaren taupada da, euskaldun izatearen laburpena -iragana, oraina eta geroa".

Bertso-finalaren aparra luze joaten da, oso luze. Berehalako efektua, Eguberrien ostean bertso-eskoletan izen eman ohi duten neska-mutil gaztetxo zein helduak izaten dira. Euskarak eta euskaldunok hartzen dugun gozotua, itxaropena. Eta erdaldunek ere, zerbait galtzen duten sentipena, euskarak ikuskizun eder baterako ateak zabalduko dizkiela, bizitzan egunerokoan adieraztea kostatzen zaigun legez. Joan da lau urterik behin egiten den saio itzela. Baina hurrengo etorri arte ere, bost mila saio inguru egingo dira, handi eta txiki, Euskal Herriko herri eta hirietan.



Mundura begira, mundu bat begira

Euskara hizkuntza berezia da. Dozenaka ikerketa egin arren ez zaio loturarik frogatu beste hizkuntza batekin ere, eta

Aurtengo bertso-finalean, hogeitazteritar baino gehiago izan dira aldi-bereko itzulpenarekin, saioa entzuten.

isolatu gisa ageri da. Luza-roan, antzeko zerbait pentsatu dute bertsolariek bertsoaz, beste inon gertatzen ez zen fenomeno zela. Hala da, neurri batean, bertsoak erakutsi du badituela paregabeko ezaugarriak, bertsolarien antolakuntzan, berritzeko gaitasunean, hibridazioan,

eguneratzean tradizioarekin hautsi gabe... baina ahozko poesia inprobisatua munduko hainbat lekutan gertatzen da.

Bertsozale Elkartek ARGO egitasmoa sortu zuen nazioarteko ikerketa hori bideratzeko. Nagusiki espainierazko adierazpideak ikertu dira, Espainian eta batez ere Latin Amerikan (Kuba, Mexiko, Argentina...), baita beste hizkuntza erromaniko batzuetako jarduna ere: Galizia, Sardinia, Herrialde Katalanak...



2003ko

jardunaldi batzuetan Georgia, Afrika iparraldea eta Kurdistan ere izan ziren hizpide, eta ahozkotatua indartsua den beste leku askotan ere badagoen fenomeno da. Tradizioarekin lotu izan da, ahozkotatunak idatzizkoak baino garrantzi handiagoa daukan eremuetan, baina ahozkotatua esparru post-literarioak ere baditu, internetetan, txatetan eta beste hainbat jardunetan. Inprobisazioa nekazari-eremuetan legez Jamaika edo New Yorkeko sortzaileengan ere badago.

Literatura konbentzionalean ez bezala, bertsoak ez dauka, berez, itzulpengintzan helburu garrantzitsuenetako bat. Baina konplexurik gabe lortu du halaber kanporako bidea egitea, eta mundu zabaleko inprobisatzaile eta ikerlarien arreta ekartzea. Aurtengo bertso-finalean hogeitazteritar baino gehiago izan dira aldi-bereko itzulpenarekin saioa entzuten, horietako batzuen hitzak jaso ditugu hemen. Azken 10-15 urteotako lanaren emaitza da, besteak beste Bertsozale Elkarteko webgunea hainbat erdaratan egotea ekarri duena, beste hainbat materialekin batera. Horietako azkenak, Etxepare Institutuaren eskutik etorri dira, eta dohainik eskuratu daitezke webgunean deskargatuta: Joxerra Gartzia Bertsolariari buruz osatutako liburuxka interesgarria (2012), eta Ahozko Euskal Literaturaren Antologia, Xabier Payaren lan mardula, 2014 honetan bertan argitaratu berria. Egileak berak adierazi legez, "haizeak eraman ez zuena" jasotzeko ahalegina da liburua.

Stein Torger Svala

1.- (Norvegiako samia): Luzaroan egon naiz etortzeko gogoz, aurtun aukera izan dut eta hemen nago. Lehen ere ikusi izan dut telebistan, badakit jendea zelan datorren hona, bihotza entusiasmoz beteta, pozez. Euskaldunak diren bezala. Guk joik-a daukagu, oso inprobisazio mota zaharra, antzeko ezaugarri batzuk ditu.

Christian Simelio

2.- (Katalunia). Katalanez *corrandista* esaten diogu, inprobisatu egiten dut. Nazioartean euskarazkoa oso ezaguna da, erreferentia da inprobisazioan diharduten guztientzat. Badakit oso desberdina dela egun hau guk Katalunian egiten dugunetik, gure topaketekin alderatuta, oso jende hunkitua ikusten dut, futbol-partida dirudi, eta espero dut esperientzia hau guztia gurerara ere eramatea. Katalanezko tradizioa Uharteetan eutsi zaio, Menorcan eta Mallorcan batez ere, Valentzian ere zerbait, Katalunian bertan herri batzuetan bazegoen *corrandista* figura bazegoen, jaietan, loturarik gabe herri herri, eta duela hamar bat urte hasi ginen, euskaldunen eraginez, melodiak biltzen, elkarrekin osatzen, herri herri saioak eta lehiaketak antolatzen, eskoletan sartu da, badago tesi doktrala, eta bide bat egiten ari da.

John M. Zemke

3.- (AEB, Missouriiko unibertsitatea, Center of Studies in Oral Tradition-eko zuzendaria). Duela 10-12 urte hasi harremanagatik nago hemen, bertsolaritzarekin eta Bertsozale Elkartarekin daukagun harremanari eusteko. Bertsolaria zer den ikusi nahi nuen. Hau egundokoa da. Ezingo nuke irudikatu 10-12.000 lagun batzea poesiagatik, ez dut beste inon horrelakorik ezagutzen, jaialdi erlijiosoren bat ez bada. Hemen lan boluntario itzela dago, bertsozaleek egiten dute hau posible, eta hori txunditzailea da, jendeak bere denbora ematea adierazpide kultural berezi baten alde. Benetan zirraragarria da.

Ana Zarina Palafox

4.- (Mexiko). Txundituta nago, urtetako lana ageri da hemen. Banuen bertsolarien berri, bertso inprobisatua leku askotan dago, baina ez hemengo neurrian eta indarrarekin, kaletik zoaz eta jende arruntak badu horren berri. Mexikon badiugu hogeitazteritar inprobisazioak, hainbat eskualdetan. Orain berpizkunde batean gaude, baina tradizioak atzera egin du nabarmen emigrazioa dela eta.

Paulu Zedda

5.- (Sardinia): Euskal Herrian lehen ere egona nintzen, baina lehen aldiz egon naiz finalean. Bikaina izan da, txundigarria, itzela; liluratzekoa da jendeak bertsolarietako daukan maitasuna, nola batzen duen sinbolikoki herri oso bat, kultura bat, nola den etorkizunerako itxaropen. Sardinian tradizio garrantzitsua daukagu, baina tamalez gure hizkuntza ez dago zuena bezain osasuntsu. Mende askotako historia poetikoa daukagu, oraindik ekitaldi asko daude, baina jende nagusia da honetan diharduena. Umeek sardiniera gutxi ikasten dute, teoriarik ofiziala izan arren.

Elin HG Jones

6.- (Gales, MERCATOR Institutuko zuzendaria): Ikusgarria da bertso-



finala, zeinen handia den, zenbat jende, zenbat gai, zenbat gauza desberdin dauden. Oso esperientzia ona izan da. Gure herrian poetak inportanteak dira; bertsoak edo poesia oso herrikoiak dira. Baditugu ospakizun jendetsuak baina ez hain bereziak, *Eisteddfod* izenekoak, adibidez. Poetek edo bertsolariek gure herrian ere rol garrantzitsua daukate, eta askotan herriko ahotsa dira.

Sonia Perez Cassola

7.- (Kuba, musikologoa). Itzela da bertso-finala, guztiz hunkituta gaude oraindik, zenbat malko eta zenbat barre, ikaragarria izan da.

Kuban ere badaude inprobisatzaileak, oso onak dira asko, baina

hemen bildu den jendetza, bertsolaritzaren indarra txunditzea da. Gurean tamalez zale gutxiago daude, oraindik badauka nekazari eremuetako kontua den ustea eta gazteek ez diote jaramon handirik egiten. Horregatik ere etorri nahi genuen hona, bagenuelako hemengo indarraren berri, eta Kubara eramateko hainbat planteamendu eta ideia daramatzagu. Emakume bat gorengo mailan ikustea guztiz hunkigarria izan da, eta itzulpenarekin izan arren, musikologiatik ere melodiar murgilduta egon naiz, kantaerek asko transmititzen dute, errimak erraz harra-patzen dira, eta gaien bidez ondo irudikatu dugu Amets Arzallus Mandelari kantatzen, edo Maialen Lujanbiorekin pailazoren roletik kantuan.

Betaurreko moreak

Basque Writing honetan agerian utzi nahi izan dugunez, bertsolaritzak, bere eremu tradizionala utzi gabe, euskal kulturako zentralitate handieneko adierazpide izatea lortu du.

Maialen Lujanbiok 2009ko Euskal Herriko txapela janztea izan da ziur aski mugarri nabarmena

Bere burua antolatzeke gaitasunagatik, berri-tzeko eta nahasteko ausardiagatik, eta uanean unekora egokitzeagatik. Bide horretan hauspo handiena emakume bertsolariek ekarri dute.

80ko hamarkadan plaze-

tan hasi ziren; itzuli ziren esan beharko genuke, ikerketek argi utzi dute historikoki lehen ere bazihardutela eta espazio publiko hori ebatsia izan zutela azken hamarkada edo mendeetan. "Txalo zaparrada beroak jasotzen nituen" zioen Kristina Mardarasek Gaur8 astekarian, 1985ean txapelketa batean parte hartu zuen lehen emakumeak. "Denetarik egon zen, hala ere, kezka ere sortzen nuen beste bertsolariengan. Ordura arte obituta zenden emakumeen gaia oso modu arinean lantzen eta ni ban egoteak muga batzuk jartzen zizkien. Arazo bat ere banintzen beraz; hori sumatu nuen".

Prozesuetan mugarriak behar dira sarritan, eta Maialen Lujanbiok 2009ko Euskal Herriko txapela janztea izan da ziur aski nabarmenena. Ikusgarriena bai, behintzat. Baina eztabaidak, ikerketak eta hausnarketak luzeago jotzen du, eta feminismo-tik oso ekarpen interesgarria ari zaio egiten bertsogintzari. Sarritan Lujanbiok berak aipatu izan duen bidea aintzat hartuta, Ainhoa Agirreazaldegik gogoratu legez: "Maialen eta beste askoren estrategia emakume bezala desagertzea izan zen, nolabait inguruarekin mimetiko bihurtzea. Lehenengo emakume belaunaldiak, inkontzienteki gorputza estali zuen, bazekitelako gorputza taulan jarri gero subordinazioan erortzen zirela. In-



telektoan bakarrik lehiatzen garenean dauden aldeak askoz txikiagoak dira.



Baina

gorputza lehiari jartzean emakumearena beti da subordinatua. Oso estrategia ohikoa izan da alor guztietan gorputza estaltzea, eta egin beharrekoa gizonezkoek bezala egitea. Baina horrek badauzka ajeak, esaterako, gorputzarekin batera denbora luzez estali direla emakumeen sexualitatea, desira, emozioak... Lehen belaunaldiak gorputza estali izanari esker egin zuen aurrera, eta horregatik izan zen posible beste belaunaldi bat sartzeko gorputza presentetago zenua. Baina gorputza agerian jartzearekin batera, beste aje batzuk sortzen dira: subordinazioarekin eta generoen arteko dikotomiarekin aurrez aurre topo egiten duzu eta hori kudeatzen ikasi behar duzu".

Agirreazaldegik "hirugarren ate" bat aldarrikatzen du, oraindik ere emakumeak ez dauzkalako aukera guztiak oholtzan, "drag queen" edo "panpin" izan behar du: "tradizionalki gizonenak izan diren munduan sartzeko bi sarbide horiek daude: drag queenarena, gizonezkoen balore, gorpuzkera, jokaeretan mugitzea, eta bestea patriarkatua molestatzen ez duen emakumea, panpina. Panpinaren ajea horixe baita, egokitasunaren kortsea, beti egoki kantatu beharra: lotsagabea bai baina lotsagabezia ez, indartsua bai baina zabarra ez, goxoa bai baina txolina izan gabe, beti oreka horretan mantendu beharra. Bertsotan horrela pasa nituen lau bat urte, eta ikaragarri nekatu nintzen, denbora guztian egoki izan

Emakumeak ez dauzka aukera guztiak oholtzan, "drag queen" edo "panpina" izan behar du.



behar horretan". Eta zein da hirugarren ate hori? "Denoi sarbi-dea emango diguna, ez dagoena gizonezkoen begiradatik neur-tua. (...) Baina badakigu denok dugula denetik, inor ez dela drag queen hutsa edo panpina hutsa. Hirugarren atea pertsonarena da. Gizonezkoen kasuan gauza bera gertatzen da, epailea ez baita gizona genero bezala, gizon-tasun hegemoniko hori baizik. Hor ere gizon asko ez dira eroso sentitzen".

**Proposamena argia da:
mundua "betaurreko
moreekin behatzea**


Uxue Alberdirenaren afera baten ondoren, Jon Maiarekin afari ba-tan bibradore bat ateratu zuten: "Oso erraz ari ginen, eta jen-dea barrez: oso ondo hartzen baitugu denok zakilaren inguruko umorea. Oso ohituta gaude. Une batean, baina, "egongo gara askatasunean zakilaz adina txiste aluz egiten ditugunean" kan-tatu nuen, eta publiko guztia isildu egin zen, aulkietan deseroso mugitzen hasi ziren. Saioa amaitzean, Jon Maiak berak esan zi-dan: "25 urte daramatzat plazetan, eta hau izan da 'alua' esan dudana lehenengo aldia". Horrek ikusarazten du errealitate osoa: gizonen sexualitateaz eta desiraz etengabe kantatzen da; emaku-meen desira beti da objektua".



Proposamena argia da, beraz lehen ere kaze-taritzan aldarrikatu den legez: mundua "be-taurreko moreekin" behatzea. Hainbat galdera proposatu ditu Alberdik: "Esango nuke emakume guztioi hasi garela bertsotan neutroak ginela pentsa-tuz, baina oholtza leku ezin hobea da gure eraikuntzaz eta gizarteak gutaz espero duenaz jabetzeko. Zergatik jartzen dizkigute "ema-kumeei buruzko gaiak" emakumeei bakarrik? Zergatik eskatzen zaie gizonen politikaz kantatzeko? Zergatik jartzen gaituzte emakumeok desiratu eta gizonak desiratzaileretan? Zergatik senti-

tzen naiz erosoago bakarkako lanetan puntu erantzunetan baino? Zergatik eskatzen didate saio guztietan nire amatasunaz kan-tatzeko eta Andoni Egañari ez? Zergatik ematen dit latsa zenbat kobratzen dudan esateak (eta zergatik uzten diot prezioa esateko ardura gizonezko bertsolariari)? Zergatik egiten dira emakumez osatutako saioak martxoaren 8an eta azaroaren 25ean bakarrik? Emakume bezala izan dudan eta kolektiboki dugun eraikuntzaz jabetzeak, kontzientzia feministak, gauza asko ulertzeko bidea eta eraldaketarako tresnak eskaini dizkit, eta oholatzak esperimentaziorako gune aparta".

Bide luzea egin du emakumeak 80ko hamarkadatik bertsotan. Orain, autokonplazentziatik urrun, feminismoaren talaatik generoa deseraiki eta inertiak gainditzeko proposamena dakarte Uxue Alberdik, Ainhoa Agirreazaldegik eta bestek. "Bidea urratu duten bertsoak" liburuxka argitaratu du ARGIAko zuzendari Estitxu Eizagirrek, "zabarkeriak edo aurreiritzi sakonek liburutatik eta are ondorengoaren memoriatik kanpo utzitako bertsolari eta bertsoak" biltzen. Alberdik esan zuen "gure belaunaldiak feminismoaren ekarpena egin diezaioke bertsogintzari". Eta Eizagirrenen lanak, bere xumean, argi dakar: "gure esku dagoela gogoan hartu eta hurrengoei irakastea, aurrekoengandik iritsi ez zaizkigun bertso hauek. Memoria kolektibo osoagoa, aberatsagoa izango dugu horrela".





Bertsoa eta Zentsura

“Bertsolaritza euskaldunon poza da: domestikazio saio guztien gainetik edo azpitik, herriak bakarrik egiten dakien modu ironiko eta zorrotz horretan, bertsoak libre eta kritiko izaten lagundu digu” esan zuen **Koldo Izagirre**ek. Ahozkotasunak, eta bat-bateko jardunak bereziki, ezer izan badute, nortasun kontrolagaitz hori izan da. Zirirako joera eta kritikarako tartea. Boteretsuei irri eta egur, biak bat datoz bertsoan.

Euskal kulturaren sasoirik ilunenetan ere, baina, asmatu zuen bertsoak lekuri izaten, **Joxe Lizasok** gogora ekarri zuen legez: “Leku askotan tradizioa zela eta jartzen zituzten bertsolariak, baina “hemen zuei asko gustatzen zaizuen hori ezta aipatu ere!” eta horrelakoak esaten zizkiguten. Makina bat aldiz bai, irten balkoira eta bertsoa ahorraino iritsi, eta hura irentsi eta osteria beste zerbaite bota behar”. Frankismo beltzeko urteetan ohikoa zen bertsolaria poliziarenera joa beharra: “

Edozer txorakeriagatik koartelera eramaten gintuzten... Aspergarria zen. Baten batek denuntzia jarri zuela esaten ziguten, baina guardia zibilak berak denuntziatzen gintuela uste dut.

Gainera haiei ezin zitzaizen bertsotako ezer esplikatu, esanda ere ez baitzuten sinesten. **Lazkao Txiki** zena eta biok joan ginen behin Getariara. (...) hango polizia! Barrura sartzera gindoazela: “¿Qué, a donde van ustedes!” “pues a cantar los bersos”. “¿Pero, qué es lo que van a cantar?” eta Lazkao Txiki “Pues no sabemos”. Eta andaluz itxiti-ixia izango zen harek “¿pue vaya cantaore de lo cojone!” Haiei esplikatu iezaiezu bertsoa zer den!

Xabier Amurizak antolatzaileen ausardia ere nabarmendu izan du, Alfontso Irigoien zenarena esaterako, beti zentsurari itzuri egiteko “maniobrak” egiten: “zer kantatuko zuten aurretik esan behar zioten gobernadore zibilar. Ez zuen ulertzen bertsolaritza bat-bateko jarduna zenik. Hala, Benito Lertxundiren abestiak bidaltzen genizkion, gaztelaniara itzulita». Errepresioa inork jasan bazuen, sotana jantzita plazetan ibiltzen zen Amuriza bera izan zen, beste apaizekin batera Zamoran zazpi urte eman baitzituen preso. Handik ere, bertsoa eraberrituko zuten ideia ugari etorri ziren, bertso-eskolak sortu eta bertsoak hirira eta kalera jauzi egiteko.

Urte ilun haien ondoren, aurretiazko zentsurarik ez dago Euskal Herrian, baina bat-batekotasunak, ziriak eta kritikak beti dakar murrak okertzen zaizena. 1993an egun bertsolari kontsagratuen belaunaldiko gazteak telebistan zirela, eten egin zuten saioa, bertsoarekin batera horma batean pintaketa egiteagatik.

Auzi larriagoak ere izan dira, bertso-jarduna gatazka politikoarekin lotu izan denean, edo bertsolariek ekitaldi politikoetan kantatu izan dutenean. 2014an bertan, Espainiako Auzitegi Nazionalen epaitu dituzte Jagoba Apaolaza eta Iker Pastor bertsolariak, urte eta erdiko espetxe-zigor eskaerarekin. 2012an Gasteizko Alde Zaharreko jai herrikoietan preso eta iheslarien senideen omenezko kalejiran bertsoak kantatzeagatik epailearen aurrera deitu dituzte. Fiskalaren arabera, bertsoetan “preso politiko” esan izana aski motibo da “terrorismoa goratu” izana leporatzeko.

Bertsozale Elkartek idatzitako adierazpenak gogora dakarrenez, “Egoera hau ez da berria, bertsolariek garaian garaiko eta tokian tokiko gertakizunen gainean kantatu izan dute beti, haien sentimendu eta pentsamenduak adieraziz. Horregatik, beren jarduna jazarria izan da historiako hainbat momentutan, bereziki duela ez hainbeste, frankismo garaian. Oso gogoan izango du oraindik ere plazan dabilen bertsolari batek baino gehiagok. Garai hori gaindituztat genuenean etorri da bertsolarien kontrako eraso zuzen hau, atzerapauso demokratikoa”.

“Kultur jardun batengatik kartzelaratzeko mehatxua benetan larria da, guztiz onartezina eta irmoki salatu nahi duguna. Kulturak, biziko bada, sortzaileak bere sentimendu eta pentsamenduak libre adieraztea ezinbestekoa du, eta epaiketa prozesuak berak dagoeneko baldintzatu egiten du adierazpen askatasuna. Adierazpen askatasunik gabe kulturak ez du etorkizunik.

Ohar honen bidez epaiketaren zain dauden bi bertsolarietara eta euren senideei gure elkartasuna adierazi eta kargurik gabe aske gera daitezen exijitu nahi dugu. Ez dugu onartuko era horretako mehatxurik, zentsurarik ezta zigorririk. Bertsoa aske, kultura aske”

Euskal PENek ere bere babes osoa eskaini die bertsolariei, eta PEN Internazionalen jakinarekin gainean jarri du kasua.



CENSORED




Amets Arzallus

Munduaren kontrabidean goaz, ahots eta hitz hutsez egiten dugu jolasa

Amets Arzallus da Euskal Herriko bertsolari txapelduna 2013ko abenduko finaletik. Etxetik jaso du bertsoa. Hendaia da, Ipar Euskal Herriko lehen bertsolaria txapela janzten. Eta kazetaria, European, Bolivian zein Palestinan hainbat elkarrizketa eta erreportaje egindakoa.

Zorionak lehendabizi txapelagatik. Bertsotan zein kazetari, sarri ibili zara atzerrian. Zelan azaldu bertsoaren fenomeno?

Euskaraz, esan gabeko hitz askorekin espresatzen gara, kosta egiten da esan gabeko horiekin esatea erdaretan. Euskara eta haren egoera, euskaren herria ulertu gabe, geuk ere ez dakigu zenbat gauza esplikatzen behar ditugun ulertarazteko hain gauza ximpleak, austeroak, askotan munduaren kontrabidean doanak, hainbesteko dimentsio soziala hartzea. Horretan badago bertsoaren irakaskuntza lana. Elkartetik bertsoaren familiak bere burua antolatzeke aski argitasun eta estrategia izatea. Horrek esplikatzen du fenomeno.



Izan ere, hitzak, neurriak, kantakera, komunikazioa, horiek guztiak eta gehiago ditu, nolabait esplikagarri, baina zirrara, are komunioa esango nuke, ez da hain erraz.

Jon Sarasuak azaltzen du nola bertsoak eta bertsoaren tentsioak hainbesteko erakarmena duen. Beharbada euskaldunok geuk ere hiztun komunitate, herri bezala, amildegi ertzean gabiltzalako, bertsoa ere hori da, batasun bat egitea dakar agian.

Atzerriko ikertzaileak izan ziren finalean. Guztiz hunkituta ikusi genituen haiek ere, euskararik jakin ez arren.

Itzultzaileek lan ederra egin zuten seinale, gauzak zail jarri genizkien ziur aski. Esango nuke gurean badagoela benetakotasun bat, hunkitzen duena. Munduan gauzak handiki egiteko joeraren aldean, gu aurkako bidean goaz, ahots eta hitz hutsez egiten dugu jolas, autosufizientzia soil horretan egiten den jolasa. Joko gisa antzeztutako jolasa.

Azaldu azken hori: zelan da txapelketak ia ez dirudiela lehia?

Bertsoa ezin da kirolek ulertu, Txapelketaren baldintzapen guztiekin. Badago lehia, baina bertsoa kooperazioan egiten da. Nahi baduzu, lehiaren parodia bat daukagu, barnean badauka benetako jokoa, baina gure arteko jolasa gailentzen da. Gure arteko harreman hori benetako da, eta gaurko gizarteko lehiakortasun bortizetik beste kontu bat planteatzen du. Bestelako su bati begira gaude.

XXI. mendeko bertsolaria hitzaren eremu guztietara egin du jauzi, literaturatik kazetaritzara, bere ditu erregistro hori guztiak. Hautsita dago marra hori, herrikoia eta jasoia izan daitekeena, nolabait esateagatik?

Ez naiz bertsolarien alderdi elitista edo intelektuala gehiegi goratu zalea. Ez da gezurra baina erlatibizatu behar da, bat-

batekotasunak baldintza prekarioetan pentsatzera eta kantatzera zaramatza eta horrek mugak ditu beti. Baina tentsio horrek erantsi egiten dio kentzen dion zati bat, eta ematen du berez dena baino gehiago, testuak ez dira hain dentsuak. Bestalde, bertsolaritzaren tradizio bat badago, eta iritsi da gaurko bertsolaritza kaletartu, unibertsitateko horretara, lehengoarekin hautsi gabe. Hori fenomeno interesgarria da. Hara Joxe Agirre bera bere adin, ikuskera eta garaiko ikuskerarekin, nola ibili zen gurekin; hori ez da askotan gertatzen, kontziente izan gabe zenbateraino zaren berritzaile edo tradizional, bi munduak oso ondo ezkondu dira. Etenik gabe iritsi da gaurko bertsolaritzara; berritzailea egitea lehengoarekin hautsi gabe. Finalean jende gaztea zein adinekoa dago, eta inor ez dago deseroso. Joxe Agirrek egin zezakeen bertsotan gaurko gaztetxo batekin. Beste gremio batzuetan ez da gertatzen hori. Beharbada bertsoak bertigo eta tentsio horren aurrean konplizitate minimoak bilatzera ekartzen zaitu, eta hainbeste konpartitzen ez duzuna elkartzea eramaten zaitu.

Arrazoi duzu, baina bertsoaren testuez baino, bertsolariezi ari nintzen. Hitzaren artistak beste eremu askotan zabilatzela, zerorri kazetaritzan hasita.

Bertsoa ariketa mentala da, estetikaz harago norbere bilaketa bat da; bestetik neurtua, errimatu eta kantatua da, baina hiru baldintza horiek kenduta ere, hitzen jolasa, pentsamendua, berdin gertatzen da. Bertsoak laguntzen du horretan, erreflexu batzuk hartzen dituzu, hitz jokoetarako bideak urratzen dituzu. Kazetaritzan aritu naizenean, baita beste hizkuntzetan ere, bertsoa beti da lagungarri. Muskulua, begia zabaltzen dizu, mihia zorrotzu. Hitzaren inguruko jolasak dira, eta bertsoa ikasbide da horientzat guztientzat.

Lehen txapeldun lapurtarra. Esan izan duzu bertsoa indartzeko euskarak indarra hartu beharko duela. Baina ikusi dugu, Araban esaterako, bertsolaritza, eskolak, bertso-giroa, lagungarri izan dela euskalgintza indartzeko.

Hizkuntza ez dugu behar mantentze hutsagatik, behar dugu bizitzeko eta jolas egiteko balio baldin badigu. Horretarako ez badu balio, ondare bezala gordetzeko, hori ez da hizkuntza gordetzea, beste zerbait izango da. Bertsoak, alderdi ludikoaz gain, hizkuntza bizirik eusten mantentzen du. Hala ere, hizkuntzaren biziraupenaren borroka lehenagotik dator, beharrezko da bertsoa bizitzekotan, baina bertsoa bizirik egoteak hizkuntzari bizirik egoten laguntzen dio, eta elikatu dezake hil ala biziko borroka hori.

Lapurtar bati ematea txapela, interesatzen zaigun zentzuan har dezagun: hizkuntzaren aldeko borroka bide nekezak ditu askotan, orain bertan Hendaia ikastolak daukan egoera, esaterako. Txapelak hor ilusioa hauspotzeko balio izatea espero dut.

Urtzi Urrutikoetxea



Bertsoa eta Literatura

Bertsolaritza literatura ote da? Harreman estu baina era berean nahasi baten galdera da. Izan da ahozko literatura kontzeptua bera kontraesankorra dela nabarmendu duenik, “literatura” “litera”tik, letratik alegia, datorrenez, idatzia le-gokioke. Etimologiak gorabehera, ahozko literatura erabili eta ikertutako kontzeptua da, eta euskaraz esan ohi denez, izena duena bada.

Bertsolarien artean ere, ñabardura asko egin izan dira. Hitz du bertsoak oinarri, noski, baina hitz hori bat-batekoa izateak erabat baldintzatzen du sorkuntza-lana. Literaturarekin bezainbat, kazetaritza, publizitatea eta egun multimedia genero berehalakoekin ere parekatu behar dela aldarrikatu izan da. Bertsoak ezinbesteko duen elementua ageri da hor: komunikazioa. Eta sorkuntza bezala, komunikazioak ere berehalakoa behar du, efektua bat-batean sortu behar du, segundo gutxira gehien jota, berriz ere testura itzultzeko beharrik gabe.

Askok dira halaber, zalantzarik gabe, euskal poesiaren adar garrantzitsuenetakoa dela aldarrikatzen. Koldo Izagirrek laburbildu zuen: “Hitzaren bitarteko adierazpidea denez, bertso-laritza literatura da. Genero berezia da, bat-batekoa delako, eta hortxe dago kakea. (...) Ez dugu alderatu behar Txirrita Lizardi-ekin, edo Xalbador Miranderekin, alor desberdinetako artistak dira. Baina bertsolaritzak izugarritzko garrantzia eduki du gure poesian. XX. mendeko obra garrantzitsuena dugu *Harri eta Herri*, Arestiren poema-liburua. Bada, liburu hori, neurri handi batean, bertsolaritzari zor diogu, batetik, Arestik eraman zuelako praktika-kara Lekuonak aspaldi begitandua zeukana, kopia zaharren teknika baliatuz mezu ezin modernoago bat emateko, eta, bestetik, bertsolaritzaren ondarean oinarritzen delako bere irudietan eta moldeetan. Gabriel Arestik eguneratu baldin bazuen gure poesia, gehiago izan zen bertsolaritzaren eraginez garaiko poesia kultuen eraginez baino”.

Eztabaida sonatua izan zuten 1963an **Inazio Eizmendi** *Basarri* bertsolariak eta **Gabriel Aresti** idazleak ARGIA aldizkarian. Hala ziotson Arestik, euskal poesiako figura garrantzitsuenetakoa: “Gauza bakarra esan



dezaioke *Basarri*, bertsolariak ere poetak direla, poeta baserritarak, (badago dioenik bertsolariak direla egiazko poeta sozial bakarrak) esko-larik gabeko poetak, baina nire iritzian, euskaldun poetarik hobereenak, olerkari guztiak baino hobeak. Eta ni ‘olerkaria’ naiz...”.

Eta *Basarri* erantzun: “Bertsolariak ere poetak direla dio Gabriel Arestik. Badu goraipamenik asko bertsolarientzat; goi gailurrean jartzen ditu (...) Ez ziran alperrik alegindu Lizardi

bat, Orixe bat, Loramendi, Emeterio Arrese, Jauregi, Jakakortajarena, Loidi eta abar. Aiek erabili zuten euskara eta bertso moldatzeko tankera ez zaizkizula gogozko esatea barkagarri da, baina aien lanetan erri-bertsolarien bertsotan bano poesi gutxi-ago dagoela esatea, ilargiak eguzkiak baino argi geiago egiten duela esatea bezela da...”.

“Gaucan, gauerdiko hamabietan ilargiak eguzkiak baino argi gehiago du. Ezta *Basarri* konturatu?” erantzun zion Arestik. “Bai, *Basarri*, poesiaren sentidua aldatu egin da, eta ez dirudi zu konturatu zarenik. Txirritaren eskola mezipratzen duzu, eta bertatik alderatzen zara. Olerkariengana jo duzu, eta hoiek ez daukate zuri ezer erakusteko. Trukean ez duzu ezer irabazi. Baina etorkizunak juzkatuko du”.



Andoni Egañak esana, eztabaida honen gainean: “Giroa bera zait kitzikagarri, hirurogeiko hamarraldi haren hasieran euskal kulturak bizi izan zuen aldaketa eta garapen nahiaren isla den heinean eta gure bi kultur-gizon garrantzitsuren eskutik datorrenez”. Arestiren poesia irakurrita etorri zen belaunaldi berriak ere ez zion uzkur egin bertsoari. Koldo Izagirrek berak, Bernardo Atxagak, Joseba Sarrionaindiak sarri erabili dituzte bertso eta kopia-formak euren poesian.

Ezin ezkutatu, alabaina, bertsoaren eta literaturaren arteko harremana sarritan estua eta beste askotan nahasia dela. Beste kultura askotan legez, tradizio herrikoien eta forma jasoen arteko lehia aspalditik dator. XXI. mendean, eztabaidak beste eremu batzuk hartu ditu: egungo bertsolaria neurri handi batean urbanoa eta ikasketa-maila altukoa da sarritan; darabilen hizkuntza ez du “herriatik” soilik hartu, literaturatik edaten du, eta askotan, hitzaren beste esparruetan ere badihardu, idatzizkoetan batik bat: prentsan, ikerkuntzan eta, zelan ez, baita literaturan ere.

*Euskal PENeko kideen-
ehuneko hamarrek bertsoare-
kin lotura zuzena daukate:
ikertzaile, gai-jartzaile, baita
bertsolariak ere.*

Euskal PENeko kideen ehuneko hamarrek bertsoarekin lotura zuzena daukate: iker-tzaile, gai-jartzaile, baita bertsolariak ere.

Eta esperientziaz, etorkizunean gehiago

izango dira. Urtero-urtero gazteentzako literatur lehiaketa bateko epaimahaian egoten naiz, eta sarritan dugu eztabaida bertso-paperekin poesia ote diren, eta nola aztertu behar diren poesia librean egindako lanen aldean. Funtsean, elkarren aurkako bi jardunen arteko harremana dago: literaturak bakar-kakoa du sorkuntza-lana, esker txarrekoa sarritan, eta bertsoak berezko du jendaurreko izaera eta berehalako erantzuna entzuleen aldetik. Aldeak bezainbat, baina, antzekotasunak ere bilatu daitezke, poesia-emanaldi batean, esaterako. Kontua da,



baina, gaur egun bi mila ume eta gaztetxo baino gehiago ari direla bertsoa ikasten eta bertsoan trebatzen. Ezin harritu, beraz, gazteen poesia-lehiaketetan asko izatea bertsoen bidez parte hartzen dutenak, poesia *konbentzio-nalean* dihardutenen aldean.

Horrek badauka beste alde bat ere, ordea: euskarazko hitzarekin jolasteko lehen urratsa dela sarritan bertsoa, eta asko direla bertsoarekin abiatuta kazetaritzara eta literaturara jauzi egin dutenak. Hau izenpetzen duenaz gain, Julen Gabiria, Unai Elorriaga Espainiako Literatura Sariaren irabazlea, eta beste asko bertsoan hasi ginen hitzekin olgetan.

2013ko bertso-finalean kantatu zutenen erdiek **libururen bat argitaratu dute**, ia guztiek idatzi ohi dituzte artikulua, egunkari, aldizkari zein irratan kolaborazioak egiten dituzte, gidoiak osatu dituzte... eta bertso-sormen hutsezko esparruekin batera, antzerkiarekin, aktoreen bakarrizketekin, musikariekin, margolariekin eta beste hainbat artistarekin batera egiten dira gaur performanceak. Geroz eta gehiago, literatura eta bertsoa lotzen. Hortxe dago *Kajkaren aulkia*, Uxue Alberdik eta Harkaitz Canok abiarazitako ekimena eta *Gabriel Aresti ikuskaria*, Alain Urrutia artista, Rafa Rueda musikaria, Oier Guillan poeta eta Andoni Egaña bertsolaria batu dituen bilbotar poetaren omenez, lekuan lekuko lagunekin batera.

Bertsotik literaturara egindako jauziaren alderantzizko kasu berezia **Uxue Alberdi** Euskal PENeko kidea da. Literatura-sorkuntzan ibiltzetik bertso-eskolan



izena eman eta plazarako bidea ez da ohikoa. Baina bi bideetan ahots propioa eta garrantziak lortu du. Hala zioen ARGIA aldizkarian: “Kanpotik begiratuta, gauza ezberdin ugari egiten dudala eman dezake, baina duela bi urte eta erdi kazetaritza lanak utzi nituenetik, bi gauzatan

zentratu naiz: bertsoetan eta idazten. Ni bat naiz, baina nire barruan oso jardun diferenteak dira, elkar ukitzen dute, baina ez dira elkarren barruan sartzen. Beti esaten dut aste barruan gehiago naizela idazle eta asteburuan bertsolari, eta udan bertsolari eta neguan idazle”. Eta aitortzen du generoen arteko interferentzia: “ez naiz

ipuin bilatu joaten. Kotxean joan, eta bat-batean bertso baten bukaera etortzea bezalatsu da. Hortik bertso-sorta egitea erabakitzen duzu, badakizu denboran ez dela luzatuko ahalegin hori. Jolas moduko bat da, bere garrantzi guztiarekin, ez du esan nahi ahaleginik jarri gabe egiten dudarik”.

2013ko bertso-finalean kantatu zutenen erdiek libururen bat argitaratu dute, ia guztiek idatzi ohi dituzte artikulua, egunkari, aldizkari zein irratan kolaborazioak egiten dituzte.

Andoni Egaña itxi beza artikulua, 2012 Bertso-Egunerako idatzitako hausnarketarekin (Bertsolaritzaren) “oinarrizko transmisioa zurkaitzua dagoela joko nuke erronka. Euskararen biziraupena eta garapenaren baitan dago bertsolaritzarena derrigor ordea. Eta horrek bai, kezkatzen gaitu, lan-tresnarik gabe geratuko baikinake, aho-huts, hizkuntza erkinduko balitz. Gainera, gure ekosisteman ez gara bakarrak, eta ez gendake bakar izan nahi. Azken hamarraldian ahaleginik egin gabe jo dugu bestelako euskal kultur espresioekin elkarlanera. Natural. Akaso oharatu garelako norbere osasuna bezain garrantzitsua dela auzokoarena. Gaur, garai batean baino askoz euskal musikari, antzerkilari, marrazkilari, idazle, dantzari... gehiago izango ditugu publiko artean festa partekatzen. Ohorea izateaz gain, bidea ere hori dela esango nuke. Basarrik eta Arestik eztabaida baten bidez duela mende erdi bilatzen zuten zidor bera. Gaur ere, butaka artean, mahaian edo kupeletan, «euskal kulturgintza» deitu dugun eta herri bat euskaratik eta euskal sormenetik eraikitzean datzan zera horren txinpartaren batzuk erneko direla egingo nuke”.



Urtzi Urrutikoetxea
Idazlea, kazetaria eta bertsolaria

Testuak: Urtzi Urrutikoetxea
Pictures: Stein Torger Svala & Bertsozale Elkarteak
Diseinua eta maketazioa: Laura Mintegi

pen@euskalpen.org
www.euskalpen.org